



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Hedabideek haien finantzazioa ordaintzen dutenei soilik laguntzen diete”

Xabi Brixton | Reagge-man

Kontzertu-promotore eta Brixton Records diskoetxearen jabea. Dena reggae-aren alde.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Humberto Bilbao

Brixton izan zen Londresko jamaikarren lehen auzo handia... nahiz zeu Getxokoa izan!

Bai, Getxoko jamaikarren auzokoa (Erromo), izan ere parekotasun handiak daude Londresen eta Getxoren artean; Bizkaiko Zubia genuke London Bridge; Areeta, *city*-a; Neguri, gune erresidentziala; eta Erromo, langile auzoa Karibeko etorkinekin.

Reggae-a benetan gustatuz gero, zure erresuma ez da mundu honetakoa...

Egia esan, reggaeak –beste musika batzuek bezala– mundu honetakoak ez diruditen sentipenetara eramaten zaitu, baina hitzak joan eta etorri dabilta bai terrenalak bai espiritualak diren mezuekin. Babylonia litzateke gure planeta, eta askatasuna eta justizia gure helburuak.

Reggae onak “trantze”-ra zarama... edo jota aspertzen zaitu!

Ona den guztiak eragiten du trantzea; reggae onak, ardo onak, janari onak, bibrazio onek... Txarra denak, ordea, aspertu, sumindu eta erreprimitzen zaitu.

Xabi, zein gustura hartuko nuke zeu arduratzea hari musikalaz... zahar-etxean biziko garenean!

Gosariko pilularekin batera *Angel of the morning*, Joya Landis-ena; bazkalosteko pilularekin, Tamllins taldearen edozein kantu; afa-losterako, Toots-en *Funky Kingston*; eta lo

egin aurreko pilula, Alton Ellis-en *Black on black*.

Antolatzen dituzun kontzertuetan beti egoten da jendea, nahiz zure artistak ez ageri hedabideetan...

Gure publikoak kriterioa dauka eta gure lana estimatzen du. Guri dagokigu gero eta hobeto egitea. Bereziki etsigarria da ikustea hedabideek haien finantzazioa ordaintzen dutenei soilik laguntzen dietela.

Esan ohi da jamaikar artistak eta ijitoak antze-koak direla. Gomendatzen al didazu neu bilakatzea flamenko promotore?

Sekula ez nuen halakorik pentsatu niretzat, hamaika nahaste-borastetan erori arte. Gurea pixkanaka etorri zen, eta ez nioke inori gomendatuko bat-batean promotore bilakatzea, esker txarreko kontu gehiago dakartzalako esker onekoak baino.

Brixton izan zen Londreseko jamaikarren lehen auzo handia... nahiz zeu zuria izan!

Bertan eman nuen urtebete bizitzen inongo arazorik gabe. Bai istilu arrazialak bai 70eko hamarkadaz geroztik izan diren erakustaldiak, sekula ez ziren gertatuko bertako biztanle zurien laguntzarik gabe. Orain Londreseko auzo *trendy* bat bilakatu da, baina jarraitzen du izaten aktibismo aurrerakoiaren zein anti-sistemaren erdigunea. ■